



ARLOA: MUSIKA



LEHEN HEZKUNTZA



SARRERA

Gaur egungo gizartean gizakion eguneroko bizitzako egoera askotan presente dago musika. Musika kontsumoa handitu egin da eta gure bizitzetan leku nabarmena hartu du. Komunikabideek eta teknologia berrien aurrerakadak musika hedatzen eta honek erabilpen erraza izan dezan lagundu dute handiro.

Musikak ikasleen artean duen garrantziaren jakitun da eskola eta kalitatezko musika-hezkuntza bermatu behar du, haien garapen osoan laguntzeko. Musika-hezkuntzak ikasleei hezibidea ematen die behaketan, esperimentazioan, analisisian eta hots errealtateen hautematean, entzumena eta sormena garatuz, baita adierazpen eta komunikazio trebetasunak ere. Gainera musika jardueretan parte hartuz, eta ahotsa, instrumentuak eta/edo mugimendua eta dantzaren bitartez, sozializazioa bultzatzen da.

Euskal Herrian musika elementu soziokultural nabarmenetako bat izan da eta da gaur egun ere, eta lurraldea komunitate gisa identifikatu du. Kultura guztien modura, euskaldunek kantuaren, instrumentuen interpretazioaren eta dantzaren bitartez espresio bideak garatu dituzte. Horregatik, musikak rol garrantzitsua betetzen du beste adierazpide batzuen aurkikuntzan eta horien erabilpen eta funtzio ezberdinen ezagutzan.

Musikaren bitartez, elkarbizitza-egoerak sortzen laguntzen duten musika-kulturen aniztasunaren ikuspegi zabal eta ireki bat garatzeko aukera ematen da, etorkizuneko gizartekideak pertsona konprometitu, kritiko eta solidario izan daitezen lagunduta. Hori dela eta, lehen hezkuntzan musika-hezkuntza hots-hizkuntzaren bidez jasotzea, adieraztea eta komunikatzea ahalbidetzen duten gaitasunen garapenean nahitaezko elementua da.

Musika Hezkuntzak zuzenean esku hartzen du oinarrizko hezkuntza eremuetan eta musika trebatzeaz haratago doa, ikasleen heziketa osoan laguntzen duelako gaitasun psikologiko, soziologiko, psikomotor eta intelektualak sustatuz. Honenbestez, musika arloan eragiteaz gain, ikasleen nortasunaren dimentsio garrantzitsu bat ere betetzen du eta arlo ezberdinetako ahalmenen garapenean laguntzen du, ikaste nabarmena eta interdiziplinarioa sustatuz.

Adin txikienetatik musikaren ikaste prozesua bizitza, esperimentazio, esplorazio eta manipulazio ikuspegi batetik ulertu behar da, eta honekin batera



Curriculuma

Euskal Eskola Publikoa **Gaur Bihar**

gozamen eta sormen maila bilatuko da, sentipenak piztuz eta pertsonaren garapen prozesuak sustatuz.



ARLOKO GAITASUNAK

Derrigorrezko hezkuntzak jasotzen dituen gaitasun orokorrak musikaren kasuan hertsiki loturik agertzen diren eremu ezberdinen arabera antolatzen dira. Lehen hezkuntzan ematen den musika hezkuntzak ikasleei tresna batzuk ematen dizkie norbanako modura moldatzen lagunduko dietenak musika modu ezberdinetan uler eta erabil daitekeen testuinguru soziokultural ezberdinetako talde eta komunitateetan. Horregatik arlo kognitibo, sentsorio-higiarazle, afektibo, komunikatibo, abiarazle eta gizarte integraziokoan ahalmenak sortzen dituzten gaitasunak garatzen dira.

-Arlo kognitiboa

Musika-hizkuntzaren oinarrizko ezagupenek ikasleak trebetasun batzuez hornituko dituzte eta hauek eguneroko bizitzan eta eskolako testuinguruan jasotzen dituzten musika esperientzia ezberdinak aurkitzeko, esploratzeko, identifikatzeko, argudiatzeko eta analizatzeko gaituko dituzte. Honek edozein hots-akuilagarriren aurrean kritika eta norbere espiritua garatzea ahalbidetuko du. Musika praktikatzea oinarrizkoa da gaitasun hauek garatzeko eta musika-hizkuntzaren funtzioa espresio tresna modura lotzen laguntzen du.

-Arlo sentsorio-higiarazlea

Gaitasun honen bitartez ikasleek gaitasun fisiko, perspektibo eta koordinaziozkoak ahal bezain gehien gara ditzaten nahi da, beraien mugak zeintzuk diren ezagutzeko eta beraien hobetzeko aukeren jakitun izan daitezen espresio, interpretazio eta sormen arloetan. Musika praktikatzeak hots-errealitatearen kontzientzia hartzea errazten du, eta ohitura osasungarriak hartzen eta hots-akuilagarrien erabilpenaren eta gehiegikerien aurrean konpromisoa hartzen laguntzen du.

-Arlo afektiboa

Musikak rol garrantzitsua du umearen nortasunaren sorreran gainontzekoen aurrean: familia, ikaskideak, lagunak... Gainera, norberaren espresio ahalbideen ezagutza hobea izaten laguntzen du jarduera ezberdinek sentiarazten dituzten sentimendu, emozio eta esperientzien bitartez. Honek



guztiak autoestimatu, errespetu jarrera, sentiberatasun estetiko eta esperientzia artistikoen gozamen gaitasuna garatzen lagunduko du.

-Arlo komunikatiboa

Musika-hezkuntzak pertsona bakoitzak bere bizitzan zehar erabiliko dituen espresio eta komunikazio trebetasunen garapenean laguntzen du. Musika-espresio modu ezberdinetan gauzatzen diren ideia, sentipen eta emozioak transmititzeko bide baliotsua da: kantua, instrumentuen interpretazioa eta dantza. Honenbestez, musika-hezkuntzak ikasleak testuinguru ezberdinetan musikaren bitartez gainontzekoekin erlazionatzeko espresatzea eta komunikatzea bermatu behar du.

-Gizarte integrazioaren arloa

Musika kultura guztietako elementu garrantzitsuenetako bat da eta integrazioa eta taldearen zati izatearen sentimendua izaten laguntzen du. Gaur egun eskolan kultura ezberdinetako jatorria duten haurrak daude eta musikak eragin integratzailea du, talde lana, ikuspegi ireki, tolerante eta kolaboratzailearen garapena kultura ezberdinetako adierazpideekin bultzatzen baitu, aniztasunarenganako jarrera positiboa sustatuz.

-Arlo abiarazlea

Musikaren sormen alderdiak haurren nortasunaren garapena akuilatzen eta ematen du inizatibak hartzen, egoera ezberdinen aurrean erantzunak bilatzen laguntzeko baliabideak ematen dizkiolako eta, azken batean, pertsona autonomo izaten lagunduko dien beharrezko baliabideak izango dituelako. Eskolan bat-batekotasuna eta sormena musika jarduera ezberdinetan presente izango dira, bai entzumen pertzepzioan eta bai espresio eta sormen pertzepzioan.

ARLOKO GAITASUNAK

- 1.-Musika-hizkuntzaren oinarriko elementuak identifikatu eta erlazionatu, hauek espresio eta komunikazio helburuekin erabiltzeko eta sortze pentsamendua garatzeko.
- 2.-Musika-lana analizatu musika-hizkuntzaren ezagupenak erabiliz, arte eta kultur adierazpen ezberdinak ulertzeko eta musika norbere gustu kritikoa sustatzeko.
- 3.-Errealitate soinuduna esploratu, deskubritu eta errealitate horren gaineko kontzientzia hartu, eguneroko bizitzan ohitura osasungarriak hartzeko eta ingurumena hobetzeko.
- 4.-Musika adierazteko, interpretatzeko eta sortzeko, oinarriko musika-trebetasunak garatu (motoreak, pertzepziozkoak, koordinatiboak...).
- 5.-Norbere musika ekoizpenak eta besterenak balioetsi eta errespetatu autoestimua, aniztasun onarpena eta taldean integrazioa lortzeko.
- 6.-Musika-jarduera kolektiboetan parte hartu, taldearen barruan hainbat funtzio bete eta ideiak zein kritikak onartu, lan-taldearen fruitu den produktu artistiko egokia lortzeko.
- 7.-Aztertu, esperimentatu, inizatiba erakutsi, sortu, eta ideiak proposatu, arte ekoizpen ezberdinak sortzeko eta hauetaz gozatzeko.
- 8.-Kultur Ondare propioko zein beste herrietako manifestazio artistiko-musikaletan parte hartu, kultur aniztasuna errespetatzeko eta baloratzeko.



ARLOKO EDUKIAK

Musika-hezkuntzak gizabanakoaren hezkuntza osoan laguntzen du nortasunaren arlo guztietatik entzumenaren, adierazpenaren eta musika-sormenaren bitartez. Musikak rol garrantzitsua du Lehen Hezkuntzan hiru alderdi hauetatik begiratuta, non sozializazioa, autonomia eta tresnak ondo erabiltzen jakitea hezkuntza jardueraren lerro nagusi modura agertzen diren.

Oro har, musika ikastaroak eskolan aipatutako oinarrizko hiru jarduera hauen inguruan izaten dira: musika hautematea, interpretazioa eta sormena. Hauek, aldi berean, kantua, instrumentuen interpretazioa, mugimendua eta gorputz espresioa, musika hautematea eta sormena edo konposizioaren bitartez garatzen dira.

Horregatik, curriculumaren edukiak Musika Hezkuntzaren hiru zutabe hauetan oinarrituz antolatuko dira; izan ere, ikasleak, hezkuntza sisteman, gaitasun batzuk barneratzeko hezten dute, eta gaitasun horiek edukietan gauzatzen eta gorputzen dira. Eduki horiek, berriz, ikasgelan azaltzen diren jardueretan gauzatuko dira, metodologi proposamen ezberdinen bitartez.

Musika Hezkuntzak ondorengoekin loturiko eduki ezberdinei heltzen die: musika hizkuntzaren ezagutza, funtzioa eta erabilpena; entzumen heziketa; bakarkako eta taldekako koru jarduera; taldeko instrumentuen interpretazioa; gertakari musikalaren garrantzia eta balioa eta honen inplikatzeari; etab.

Azken batean, Lehen Hezkuntzako Musika Hezkuntza, Pascual Pastorek dioen bezala (1993:81) *musikaren esperientzia bizi eta zuzena sortzea proposatzen da zer den eta zertarako balio duen deskubritzeko, nola eraikitzen den eta nola funtzionatzen duen bere hizkuntzak eta gizarte erabilpenaren balioa ezagutzeko eta entzute inteligente baten eta interpretazio praktikoaren bidez gozatzeko.*

Lehen Hezkuntzarako kontuan hartzen diren eremuko eduki blokeak ondorengoak dira: Musika-hizkuntza, entzute-heziketa, musika-espresioa eta sormena (ahotsa, instrumentua, mugimendua eta dantza)



Musika Hizkuntza

Musika Hizkuntzako edukiak analititik eta entzumen aktibotik, eta sormenetik zein bat-batekotasunetik abiatuta hizkuntza elementuen erabileraren bitartez ikasleei adierazpenerako eta komunikaziorako, eta musika hautematerako beharrezko tresnak ematera bideratuko dira

Entzumen-heziketa

Hots iturriak, musika aniztasuna musikaren estetika, komunikazio eta gizarte dimentsiotik abiatuta, barne entzumen baten eta gaitasun kritiko baten garapena hots akuilagarriaren aurrean entzumen-heziketaren edukien oinarrian izango dira

Espresioa eta sormena (ahotsa, instrumentua, mugimendua eta dantza)

Gai bloke honen edukiek hots musika fenomenoarekin komunikazio eta sormen eragile gisa izandako esperientzia hartzen dute abiapuntu.

Eduki bloke honen helburua ikasleek adierazpen eta komunikazio moduak kreatiboki eraiki eta esploratu ahal izan ditzaten dago bideratuta. Norbere moduak, bakarrak eta errepikaezinak pertsona bakoitzaren barnetik eraikitzen direnak eta modu ezberdinetara jasotzen direnak.

Sormen jarduera, honenbestez, osagarri kognitibo, afektibo, sozial eta irudimenezkoen sintesia da. Bizipen, sentiberatasun eta ezagupenen asimilatzearen garapenaren fruitua da gainera.

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<p>Musika Hizkuntza.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Hotsen eta hots iturrien nolakotasunak: hots ingurunea eta hots aukerak. 2. Musika osatzen duten elementuak: melodia, erritmoa, harmonia, forma eta egitura. 3. Musikaren irudikapen grafikoak: <ul style="list-style-type: none"> -ohikoak ez diren musika irakurketa-idazketa kodeak. -musika irakurketa eta idazketa: pentagrama, notak, irudiak (beltza, kortxea, zuria, kortxea erdia, biribila), isiluneak, sol klabea, neurria... 4. Adierazpen ikurrak eta agogikoa 5. Oinarrizko musika formak: motiboa, 	<p>Musika Hizkuntza.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Soinuaren nolakotasunen entzumen bereizketa eta irudikapen grafikoa. 2. Soinudun ingurunearen esplorazioa eta hots aukeren bilaketa. 3. Ohiko eta ez ohiko ikurren irakurketa musika pieza errezen interpretazioan. 4. Musika ekoizpen txikien ohiko eta ez ohiko ikurren bidezko idazketa. 	<p>Musika Hizkuntza.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Musika Hizkuntzaren baliospena ideien eta musika konposizioen ezagutzaren transmisio modura. 2. Musika adierazteko norbere grafiak sortzearekin gozatzea.

<p>esaldia, AA, ABA, rondo, kanona...</p> <p>Entzumen-heziketa</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Soinudun ingurune hotsak eta ekologia akustikoa. 2. Entzumen aktiboaren oinarriko arauak: arreta, barne entzumena, memoria musikala. 3. Garai, estilo eta kultura ezberdineko musika lan motzak. 4. Hurbileko ingurune musika adierazpenak. 	<p>Entzumen-heziketa</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Hotsa ingurune fenomeno modura behatzea eta esperimentatzea. 2. Musikaren elementu ezberdinen ezagutza eta ahots eta instrumentu ezberdinen hotsak diskriminazioa estilo, musikagile eta garai ezberdinetako musika pieza txikien entzumen bitartez. 3. Kontzertu eta musika jardunaldietan parte hartzea eta ikustera joatea. 	<p>Entzumen-heziketa</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Hotsen bereizkuntzarik gabeko erabilpenaren aurrean jarrera kritikoa eta arduratsua. 2. Estilo, musikagile eta garai ezberdinetako musika lanak entzunez gozatzea. 3. Kontzertu eta musika jardueretara joateko interesa.
---	---	--

<p>Espresioa eta sormena</p> <p>Ahozko espresioa</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ahotsa musika instrumentu gisa: arnasketa, igorpena, afinazioa eta intonazioa. 2. Abestia: musika, adierazpen eta literatur alderdiak. 3. Testuinguruan kokatzeko elementuak: ahots motak eta parte-hartzaile kopurua 4. Errepertorio anitza: Euskal Herriko eta munduko beste kultura batzuetako abestiak. 	<p>Espresioa eta sormena</p> <p>Ahozko espresioa</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ahotsaren soinu aukerekin norbere eta taldeko adierazpide gisa esperimentatzea. 2. Jolas moduan ahots teknika praktikatzea. 3. Abesti mota ezberdinen interpretazioa taldean. 4. Ikasitako elementuen konbinazioetatik abesti txikiak konposatzea. 5. Erritmo eta / edo melodia esaldi txikiak inprobisatzea. 	<p>Espresioa eta sormena</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Musika-jardueretan aktiboki parte hartzeko interesa. 2. Ahotsaren, musika tresnen eta gorputzaren adierazpen eta komunikazio aukeren balioespena. 3. Norbere musika ekoizteko aukeretan konfiantza eta norbere edo besteren adierazpide ezberdinenganako errespetua. 4. Ahots eta instrumentu bidezko interpretazioa, konposizioa eta sorkuntzarekin eta mugimendua eta dantzarekin gozatzea. 5. Talde-lana balioestea, arauak onartzea eta ardurak nork bere gain hartzea. 6. Musika-lanaren kalitatearen
--	---	--

<p>Espresio instrumentala</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Soinu gorputzak eta musika-instrumentuak: aukerak, hoskera ezaugarriak, sailkapena... 2. Gorputza musika-tresna gisa: gorputz perkusioa, soinu eta erritmo aukerak. 3. Instrumentu teknikak eta interpretazio alderdiak: gorputz jarrera eta arnasketa, manipulazioa, hatz-higidura, zehaztasun erritmikoa, dinamikaren kontrola. 4. Interpretazioa: flauta, txistua, instrumentarium Orff... 5. Interpretazio arauak: isiltasuna, zuzendariari arreta, taldearenganako egokitzapena, memoria eta barne entzumena. 6. Instrumentu eta nahasizko piezen 	<p>Espresio instrumentala</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Soinu eta erritmo aukeren esperientzia bai giza gorputzez eta bai soinua ateratzen duten objektuez eta musika tresnez. 2. Instrumentu eta interpretazio alderdien teknikak praktikatzea: gorputz jarrera eta arnasketa, manipulazioa, hatz-higidura, zehaztasun erritmikoa, dinamikaren kontrola. 3. Banaka eta taldean musika pieza soilak interpretatzea, teknika eta adierazpen alderdiak kontuan izanik. 4. Abestien eta melodien laguntza pordoiz, obstinatz eta beste hots efektu batzuen bidez. 5. Melodia txikien inprobisazioa eta konposizioa bakarka eta taldean. 	<p>balioespena eta ongi egindako lanagatik atsegina.</p> <ol style="list-style-type: none"> 7. Gelan erabilitako instrumentu eta tresnen erabileran eta mantenuan arreta. 8. Norbere kulturaren eta beste kulturen musika adierazpenenganako errespetua eta interesa.
---	--	---

<p>askotariko erreperorioa: Euskal Herriko eta munduko beste kultura batzuetako musika.</p>	<p>6. Soinudun jostailuak eraikitzea ezagutzen dituzten musika tresnekin lotuta.</p> <p>7. Instrumentuak sailkatzeko irizpide nagusien analisisa.</p>	
<p>Mugimendua eta dantza</p> <p>1. Adierazpen mugimendua eta musika: keinua eta gorputz mugimendua musika adierazpide gisa.</p> <p>2. Mugimenduaren oinarrizko teknikak: urratsak, lokomozioa, errotazioa, goratzea, jarrera...</p> <p>3. Mota ezberdineko dantzak: Euskal Herriko dantza tradizionalak, kultura ezberdinetakoak, aerobikoak, areto dantza, oraingoak... eta koreografia errazak</p>	<p>Mugimendua eta dantza</p> <p>1. Aukera higiarazleen esperimantazioa, musika adierazpide eta banakako eta taldeko komunikazio bide gisa.</p> <p>2. Taldean estilo, kultura... ezberdineko dantzen interpretazioa</p> <p>3. Koreografia bakunak egitea.</p> <p>4. Melodia bat jarraituz gorputz mugimenduak inprobisatzea.</p> <p>5. Musika-elementuak ezagutzea dantzen bitartez</p>	



EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Ebaluazioa hezkuntza-prozesuaren zati gisa irakasleek eta ikasleek partekatutako jarduera bat da eta lortutako gaitasunak ezagutzera bideratuta dago, curriculumean planteatzen diren gaiak oinarri hartuz: zer, nola, noiz eta zertarako garatzen diren aipatutako gaitasun horiek. Musika Hezkuntzan, ebaluazio prozesuak ez dizkigu emaitzak datu modura soilik ematen, horretaz gain, irakaste-ikaste prozesuari buruzko hausnarketa bati heldu behar zaio ikasleen aurrerapena, hauen musikagatiko interesa, irakasle-ikasle interakzioa, aniztasunarenganako arreta, metodologia proposamenak, etab. kontuan izanik. Ebaluazioak akuilagarri bat eta hezkuntza prozesu guztiaren komunean jartzea izan behar du.

Lehen Hezkuntzan, Musika Hezkuntzaren ebaluazioak arlo honetako curriculumean planteatzen diren eremuetan jasotako gaitasunak eskuratzeko lanaren isla izan behar du.

Musika Hezkuntzaren erabilpenaren bidez sormen eta interpretazio egoeretan notazioaren oinarrizko elementuak eskema erritmiko eta melodiko bakunetako irakurketan eta idazketan aplikatzeko gai diren egiaztatzen da. Musika-lan batetik honen oinarrizko osagaiak ateratzeko gaitasuna ere behatzen eta balioesten da.

Entzumen heziketaren bitartez, ikaslea bere soinudun ingurunean sentiberatuta dagoen eta bere inguruneke ingurumenarekin lotutako ohitura osasuntsurik ba ote dauden egiaztatzen da. Gainera, ikasleek soinu iturri ezberdinak esploratzeko adierazten duten interesa eta musika aniztasuna bere estetika, komunikazio eta gizarte dimentsiotik behatzen dira.

Musika adierazpenaren eta sormenaren bitartez, adierazpen eta sormen baliabideak garatzeko gaitasuna balioesten da ahotsa, gorputza eta musika-tresnen bidez landutako trebetasun teknikoak erabiliz. Gainera, norbere eta besteren ekoizpenenganako asebetetze maila eta errespetua balioesten dira, gertakari musikolari buruzko argudio sendoen fruitu diren iritziak emateko gaitasuna.



Interpretazioak lortutako garapen tekniko maila, parte-hartze aktiboa, norbere inizatiba, taldeko gainerakoenganako egokitzea eta kooperazio lanari egiten zaion ekarpena egiaztatzea ere ahalbidetzen du.

GAITASUNAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
1.- Musika-hizkuntzaren oinarrizko elementuak identifikatu eta erlazionatu, hauek espresio eta komunikazio helburuekin erabiltzeko eta sortze pentsamendua garatzeko.	1.-Notazio musikala erabiltzen du erritmo eta melodia eskema bakunak irakurtzeko, musika sormen eta interpretazio egoeretan.
2.-Musika-lana analizatu, musika-hizkuntzaren ezagupenak erabiliz, arte eta kultur adierazpen ezberdinak ulertzeko eta norbere gustu kritiko musikala sortzeko.	2.-Proposatutako musika lanaren oinarrizko elementuak ateratzen ditu eta bere iritzia ahoz ematen du, aurrez eskuratu dituen ezagupenetan oinarritzen diren irizpide musikalen bidez argudiatuz.
3.-Errealitate soinuduna esploratu, deskubritu eta errealitate horren gaineko kontzientzia hartu, eguneroko bizitzan ohitura osasungarriak hartzeko eta ingurumena hobetzeko.	3.-Soinuen erabilpena eta isiltasuna identifikatzen ditu, bai ohiko egoeretan eta bai musikaren arloan, soinu ingurunean jarrera aktiboa eta kritikoa erakutsiz.
4.-Musika adierazteko, interpretatzeko eta sortzeko, oinarrizko musika-trebetasunak garatu (motoreak, pertzepziozkoak, koordinatiboak...).	4.-Ongi lotzen ditu musika, mugimendua eta adierazpidea, interpretazioan zehar teknika egokia aplikatuz.

5.-Norbere musika ekoizpenak eta besterenak balioetsi eta errespetatu autoestimua, aniztasun onarpena eta taldean integrazioa lortzeko.	5.-Musika gaitasun eta norbere edo ikaskideen adierazpide ezberdinenganako atsegina eta errespetua adierazten ditu.
6.-Musika-jarduera kolektiboetan parte hartu, taldearen barruan hainbat funtzio bete eta ideiak zein kritikak onartu, lan-taldearen fruitu den produktu artistiko egokia lortzeko.	6.-Antolakuntza eta lankidetzak inplikatzeko dituzten musika jarduerak kooperatiboki gauzatzen ditu.
7.- Aztertu, esperimentatu, inizatiba erakutsi, sortu eta ideiak proposatu, arte ekoizpen ezberdinak sortzeko eta hauek gozatzeko.	7.-Bere ekoizpen artistikoak inprobisatzeko eta emateko baliabide musikalak erabiltzen ditu interpretazioan eta entzutean suhertasuna erakutsiz.
8.-Kultur Ondare propioko zein beste herrietako manifestazio artistiko-musikaletan parte hartu, kultur aniztasuna errespetatzeko eta baloratzeko.	8.-Bai gure kulturako eta bai beste kultur errealitate batzuetako musika jarduerak eta emankizunenganako atsegina erakusten du.



DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA



SARRERA

Zalantzarik gabe, musikak presentzia oso garrantzitsua du gure ikasleen eguneroko bizitzetan eta horrexegatik hezkuntzan ere hala izan behar du. Adin hauetan musikak garrantzi handia hartzen du bizitzako arlo guztietan presente dagoelako eta giza harremanen garapenari, nortasunaren eraketari eta taldearen kide izateari loturik dago. Hala, gozamenaren iturri eta adierazteko eta komunikatzeko tresna da.

Gaur egun komunikabideek modu erabakigarri batez eragiten dute nerabeen musika gustuetan eta honek musikara zuzendutako kontsumo batetara daramatza, eta horregatik sortzen da pertsonak musika aintzat hartzen, analizatzen, adierazten eta hausnarketa kritiko bat egiten gaitzeko beharra.

Musika hitzik gabeko hizkuntza da, gizarte bakoitzean ezarritako kultur kodeetan oinarritzen dena, gizakien arteko komunikabidea eta artelanen adierazpidea. Gertakari musikalean soinua ekoizten eta konbinatzen dira, leku eta garaien arabera, aldatzen diren arau batzuk kontuan izanda. Barne-egoera baten adierazpen pertsonala izateaz gain, errealitate soziokultural baten isla ere bada.

Bigarren Hezkuntzako Musika Arloaren helburua ikasleak etaparen amaieran gutxieneko musika ezagupen batzuk lortzea da, musikari dagokion kulturaren inguruko informazioaren aurrean elementu aktibo eta jakitun bihurtuko dutena eta bere eskura dauden musika baliabideak halako autonomia batez erabiltzea ahalbidetuko diotena.

Horregatik, beharrezkoa da musikak gizarte maila ezberdinetan duen funtzioari, beste kultura batzuetako musikari eta eguneroko bizitzako egoera musikalei heltzea.

Bestalde, gaur egun ikus-entzunezko komunikabideek eta teknologia berriek arte eta musika sortze eta hedatze tresna gisa duten goraldiak euskarri hauek ondo ezagutzea beharrezko bihurtzen dute, hauek modu kreatiboan eta kritikoan erabiltzeko.



Musika-fenomenorako hurbilketa bi modutara egin daiteke: entzule modura edo sortze prozesuan parte hartuz sormenean edo musika interpretazioan.

Musika aditze eta adierazte bidez antolatutako jasotze eta sortze dimentsio bikoitz honek ezin du baztertua izan, baizik eta elkarrekin erlazionatzen dira Bigarren Hezkuntzako ikasleei musikarekiko sentiberatzea ahalbidetzeko, honen bidez komunikatzea lortzeko, gertakari musikala hobeto uler dezan eta musikaren estetika balioesteko gaitasun handiagoa eta musika esperientziarenganako poz eta atsegin maila handiagoa lor ditzan.



ARLOKO GAITASUNAK

Musika-hezkuntzak oinarrizko gaitasunen garapena sustatzen du: kognitiboak, sentorio-higiarazleak, afektiboak, komunikatiboak, parte hartzekoak eta sozializatzeakoak eta abiarazleak. Gaitasun hauen garapena ez da isolatuta gertatzen, baizik eta batzuk eta besteak nahastu egiten dira eta aberastu egiten dira musika praktikatzean.

Gaitasun kognitiboen garapena pertzepzio, abstrakzio eta hausnarketa bidez egiten da, entzute arretazko eta aktiboaren eta aditze memoria martxan jartzearen bitartez. Entzute aktiboaren bidez gertakari musikala osatzen duten elementuak ezberdintzeko eta nolakotasun musikalak ezberdintzeko gaitzen da. Audizioa lan musikalaren esanahiaren aurka doa, baita horren osagai ezberdinen aurka ere, aurretiko musika ezagupenekin lotuz. Bere aldetik, ulermen memoriak aurrez barneratutako soinu esperientziak oroitzea eta progresiboki luzeagoak eta korapilatsuagoak diren musika-elementu ezberdinak elkartzea ahalbidetzen du.

Musika, emozioak adierazteko modu gisa, tresna ezin hobea da **gaitasun afektiboak** garatzeko, eta sentimenduak, emozioak eta ideiak adierazteko aukera eskaintzen du, gozatzeko gaitasuna garatzen den aldi berean.

Gaitasun sentorio-higiarazleak musika praktikaren bidez garatzen dira ahotsaren, instrumentuen, mugimenduaren eta dantzaren bitartez.

Instrumentuen interpretazioaren bidez entzumen, ikusmen eta ukimen koordinazioa garatzen dugu; ahotsaren bidez arnasketari, soinuak ateratzeari... dagozkion trebetasunak lortzen dira; mugimenduaren eta dantzaren bidez, gorputzaren koordinazioa sustatzen da, entzumen behaketa akuilatzen da eta musika adierazpenari osotasun zentzua ematen zaio.



Musika-hezkuntzak komunikazio eta sozializazio gaitasunak garatzen ditu orobat. Taldean musika egiteak arau batzuk onartzea, taldea zuzentzen duen pertsonaren eta gainontzeko taldekideen oharrei arreta jartzea, norberari eta besteei entzutea, une egokian jardutea eta, ideiak proposatuz eta proposamenak onartuz, lankidetzan aritzea eskatzen ditu, sormen musikal komuna hobetzeko helburuz.

Azkenik, musikak gaitasun abiarazlea garatzen du aldi berean. Musika ikasteak soinuaren osagaiak deskubritu eta hauekin esperimentatzera, interpretazioan inprobisatzera, musika ideiak aurreratzera eta, azken batean, soinu munduari dagokionez, sormen gaitasuna garatzera eramaten du norbere musika sortzeko aukera eskainiz.

ARLOKO GAITASUNAK

- 1.- Musika-interpretazioa eta -sortzea ahalbidetuko duten trebetasun eta teknikak garatzea eta aplikatzea, ideiak eta sentimenduak adierazteko, bakarka edo taldeka.
- 2.-Kultur ondasun eta kulturen arteko aberastasun iturri gisa, estilo, genero, joera eta kultura askotariko musika-lanen ezaugarriak ezagutzea eta erlazionatzea, terminologia egokia aplikatuta, hauek deskubritzeko eta kritikoki balioesteko.
- 3.-Musikaren eta hizkuntza artistikoen zein ezagutza-arloen arteko harremanak analizatzea, produkzio artistikoetan eta ikus-entzunezko zein komunikaziozko bitartekoetan duen funtzioa baloratzeko.
- 4.-Musika-jarduera kolektiboetan parte hartzea, taldearen barruan hainbat funtzio betetzea eta ideiak zein kritikak onartzea, lan-taldearen fruitu den produktu artistiko egokia lortzeko.
- 5.-Soinua eta isiltasuna balioestea, bai musika elementu gisa eta bai ingurumeneko zati gisa, ekologia akustikoaren eta soinuaren bereizkuntzarik gabeko erabilpen erasoaren kontzientzia hartzeko.
- 6.-Ikaskuntza autonomoa garatzeko, musikaz gozatu ahal izateko eta musika-produkziorako baliabide gisa erabiltzeko, erabili informazioaren nahiz komunikazioaren teknologiak eta ikus-entzunezko bitartekoak.
- 7.-Iturri ezberdineko informazioa kudeatzea (fonotekak, testuak, internet, partiturak eta beste baliabide grafiko batzuk) garai eta estilo ezberdinetako musika ezagutzeko eta aberastasun pertsonal eta kultural iturri gisa balioesteko.



ARLOKO EDUKIAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Musika Arloak jarraipena ematen dio Lehen Hezkuntzako curriculumari, hautemate, adierazpen eta sormen gaitasunen garapena eta musika-hizkuntza gertakari musikala hobeto ulertzeko tresna gisa sustatzearen ideian oinarritzen baita. Modu horretara, ikasleak entzule, interprete eta sortzaile bihurtzen diren jarduera ezberdinetan interakzioa izatea ahalbidetzen da.

Etapa honetako ikasleen adinak beraien bizitzan aldaketa fisiologiko eta psikologiko garrantzitsuak izango diren une erabakigarri batekin bat egiten du, eta hor musika garrantzi berezia hartuko du. Musika nerabeen etengabeko konpainia bihurtzen da eta beraien zaletasun gogokoenetako bat da. Honenbestez, Musika Hezkuntzaren arloan kontuan izan beharko dira ikasleek beraien eguneroko bizitzan azaltzen dituzten gustu eta lehentasunak, beraien musika esperientzia beste kultura batzuetako musika adierazpenekin lotu ahal izateko.

Gainera, musikak rol garrantzitsua du nerabeen gizarte integrazio eta interakzio prozesuan, eta horregatik egoera hau ezagutu eta baliatu beharko da heziketa arloan, eta musika irakasteko oinarritzko elementu gisa erabili beharko da. Musika Arloko edukien bitartez, musikaz entzule eta interprete gisa gozatzeko gaitasuna garatu, toki eta garai ezberdinetako beste testuinguru batzueganako interesa sustatu, komunikabideen eraginaren aurrean iritzi eta pentsaera kritikoa eraiki eta musikaren sortze prozesuak sustatu behar dira.

Etapa analitikoago honetan musikaren arlo espezifikoetan sakontzen da gertakari musikalaren analisi eta abstrakzio maila handiagoa eskatzen duten edukiak landuz, bere adierazpen, sormen eta pertzepzio alderdi hirukoitzean.

Musikaren oinarriak

Hizkuntzaren ezagutzak eta erabilerak ikasleen eskura jartzen ditu, informazioa eta irizpide eraketa ematen dieten tresnak inguratzen duen eta



norberak entzutea aukeratzen duen musikarenganako norbere gustua eta iritzi kritikoa sortzeko.

Musika-espresioa eta -sormena (ahotsa, instrumentua, mugimendua eta dantza)

Guztiok dauzkagun ahots baliabideen ezagutza, ahotsaren eta honen zainketaren bidez adierazteko aukeren kontzientzia hartzea eta kantatzeak sortzen duen atsegina ahots heziketa egoki baten oinarrian daude eta hau, aldi berean, entzumen heziketari hertsiki loturik dago.

Instrumentuen eta soinua ekoizteko balio duten beste bide batzuen bidezko adierazpenak mugimenduarekin eta dantzarekin batera oinarrizko gaitasun higitzaileak garatzen ditu entzumen, ikusmen, ukimen eta gorputz koordinazioaren bitartez. Musika-esperientzia bizitzea ahalbidetzen duen bidea da, sormenari, inprobisazioari, komunikazioari eta lankidetzari bide emanez.

Entzumena eta musika-testuinguruak

Gai bloke honen edukien bitartez sustatuko dira musika adierazpen ezberdinen hurbilketa, hauen erabilerak eta funtzioak, hedapena, hizkuntza, musika kulturaren eta ikasleen eguneroko bizitzaren barruan ulertuta.

Motibazioak, entzuteko ohiturak, pertzepzioak, ezagutzak, analisiak eta ikastearen bidez jasotako esperientziek musika lana aintzat hartarazi eta guztiz gozaraziko dute.

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<p><u>1.-Musikaren oinarriak.</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Soinuaren parametroak: altuera, iraupena, intentsitatea eta tinbrea. Ekologia akustikoa. 2. Musika-grafien irakurketa-idazketa: notak, irudiak eta isiluneak, azentua, neurriak, giltzak, eskalak, tarteak, alterazioak, errepikapen ikurrak, dinamika adierazleak, agogikoa, esaldia eta esaldi erdia, kadentzia, akordeak. 3. Musika osatzen duten elementuak: erritmoa, melodia, harmonia, egitura, dinamika eta instrumentazioa. 4. Soinuen aldiberekotasuna. Musikaren zentzu bertikala eta horizontala. 	<p><u>1.-Musikaren oinarriak.</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Behaketa eta esperimendazioa soinu ezberdinekin nolakotasun fisikoak kontuan izanik. 2. Partitura bakunen irakurketa ahotsaren edo instrumentuen bidez eta musika ideien idazketa, bai ohiko grafiekin eta bai ohikoak ez direnekin 3. Konposizio musikalaren osagaien identifikazioa (erritmoa, melodia, harmonia, dinamika eta instrumentazioa) eta horien oinarri teorikoak. 	<p><u>1. Musikaren oinarriak.</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Musika-irakurketa eta idazketarenganako interesa eta musika-hizkuntzaren balioespena, adierazpen eta komunikazio bide gisa. 2. Musika hezkuntza osoaren eta garapen pertsonalaren zati garrantzitsu gisa balioestea.

<p>5. Musika-forma bakunak eta konposatuak. Atal errepikapena (bitariko forma, hirutarra, rondo, librea). Aldaera errepikapena (bariaziodun tema, obstinatoa). Imitazio errepikapena (kanona, fuga). Garapen errepikapena (forma-sonata).</p> <p><u>2.-Espresioa eta sortzea</u></p> <p>Ahozko espresioa</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ahotsa: ahots aparatua eta igorpen eta arnasketa teknikak. 2. Ahotsa hitz egiten eta ahotsa abesten: ezaugarriak eta trebetasun teknikoak zein interpretatiboak. 3. Interpretazioa taldean 4. Ahotsen sailkapena eta ahots taldeak. 	<p><u>2.-Espresioa eta sortzea</u></p> <p>Ahozko espresioa</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ahotsaren erabilera zuzena erlaxazio, arnasketa, artikulazio, inpostazio, erresonantzia eta intonazio ariketak egitearen bidez. 2. Ahotsaren soinu aukeren esplorazioa adierazpen bide modura. Fonema, errima, ahokorapilo eta testuen erabilera. 3. Abestiak interpretatzea, buruz ikastea 	<p><u>2.-Espresioa eta sortzea</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ahotsaren, gorputzaren eta instrumentuen ezagutza eta zainketarekiko interesa. 2. Gaitasun tekniko eta interpretatiboak hobetzeko onarpena eta alde zuzeneko jarrera (ahotsa, instrumentua eta gorputza), baita interpretazioaz gozatzeko jarrera ona ere. 3. Gainerako gaitasun eta adierazpideenganako errespetua,
--	---	---

<p>5. Errepertorio anitza: Euskal Herriko eta munduko beste kultura batzuetako abestiak.</p>	<p>eta konposatzea, alderdi musikalak eta literarioak kontuan izanik.</p> <p>4. Estilo ezberdineko lanen soinu errepertorio bat egitea, Euskal Herriko eta munduko beste kultura batzuetako abestiak izango dituen.</p> <p>5. Abestiak <i>a capella</i>, instrumentuen laguntzaz, mugimenduen laguntzaz eta grabatutako laguntzen gainean</p> <p>6. Ahots mota ezberdineko ahots taldeak entzutea.</p> <p>7. Estilo ezberdineko ahots pasarte eta lanak entzutea.</p> <p>8. Ahots inprobisazio (bakarka eta taldean...) melodikoak testu baten gainean eta harmonia eskema bakunen gainean.</p> <p>9. Soinu praktiken grabaketa behaketa eta analisi modura, soinu manipulazio bide ezberdinak erabiliz.</p>	<p>jarrera kritikoa mantenduz.</p> <p>4. Taldeko interpretazioan indarrean dauden arauak onartzea eta betetzea, lankidetzaz eta elkartasun jarrerarekin.</p> <p>5. Adierazpen forma ezberdinak balioestea (ahotsa, instrumentua eta gorputza) ezagupen pertsonalerako, komunikaziorako eta gozamenerako bide modura.</p> <p>6. Musika-proposamen berrien aurrean sentiberatasuna, horien elementu sortzaile eta berritzailek balioetsita.</p> <p>7. Inprobisazioa aintzat hartzea eta horretaz gozatzea, musika eta dantza forma espontaneoaren sortzea eta gauzatzearenganako errespetua.</p>
--	--	--

<p><i>Espresio instrumentala</i></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Soinu ekoizpenaren eta anplifikazioaren oinarri fisikoak, musika-tresnetan eta soinua ateratzeko gorputzetan. 2. Musika-tresnen sailkapena: irizpideak. 3. Musika-tresna motak: tradizionalak, orkestra, gaur egungo musika, 4. tresna elektroakustikoak eta soinu artxiiboak (MIDI, wav, mp3) 5. Talde instrumentalak: orkestra, banda, ganbera, instrumentu talde ezberdinak. Eraketa eta leku banaketa. 6. Oinarrizko interpretazio arauak: isiltasuna, zuzendariari arreta, taldearenganako egokitzapena, memoria eta barne entzumena. 7. Euskal Herriko eta munduko beste 	<p><i>Espresio instrumentala</i></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Musika-piezen interpretazioa gelako instrumentuekin, bai bakarka eta bai taldean, teknika eta adierazpena zuzenduta eta aurrez hitzartutako arauak aintzat hartuta 2. Inprobisazio instrumentalak harmonia eskema bakunen gainean, motibo melodiko eta erritmikoak, eskala ezberdinak, etab. 3. Abesti eta pieza instrumentalentzat laguntzak konposatzea. 4. Grafia ezberdinen erabilera, sortutako pieza instrumentalak idatziz erregistratzeko. 5. Baliabide teknologikoen erabilera musika sortzeko, editatzeko, interpretatzeko eta erreproduzitzeko. 6. Musika-konposizioaren osagaiak ezagutzea eta ezberdintzea (erritmoa, 	
---	--	--

<p>kultura batzuetako instrumentu eta nahasizko piezen askotariko erreperitorioa.</p>	<p>melodia, harmonia, dinamika eta instrumentazioa) interpretatutako lanetan edo pasarteetan.</p> <p>7. Praktika instrumentalen grabaketak egitea, behaketa eta analisi bide modura, soinua manipulatzeko modu ezberdinak erabilia</p>	
<p>Mugimendua eta dantza</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Mugimenduaren oinarrizko teknikak: lokomozioa, keinuak, goratzea, errotazioa eta posizioa. 2. Konbinaketak eta inprobisazioak: koreografia bakunak 3. Mota eta estilo ezberdineko dantzak: (Euskal Herriko tradizionalak, kultura 	<p>Mugimendua eta dantza</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Mugimenduaren oinarrizko teknikak praktikatzea: koreografia bakunen konbinaketen eta inprobisazioen lokomozioa, keinuak, goratzea, errotazioa eta posizioa. 2. Mota ezberdineko dantzak praktikatzea (Euskal Herriko tradizionalak, didaktikoak, aerobikoak, 	

<p>ezberdinetakoak, aerobikoak, areto dantzak, gaur egungoak, dantza klasikoa, garaikidea...</p> <p>4. Dantza kultur adierazpen modura: historia eta gizarte testuingurua.</p> <p>5. Mugimendua eta dantza beste arte mota batzuei lotuta</p>	<p>areto dantzak, gaur egungo dantzak...)</p> <p>3. Urrats eta mugimenduen inprobisazioa, emandako formula erritmikoen edo melodikoen arabera</p> <p>4. Estilo eta garai ezberdineko abesti eta musika piezentzat koreografiak asmatzea.</p> <p>5. Ikus-entzunezko eta informatika baliabideen erabilera, dantzak eta mugimendu moduak ezagutzeko, eta gelan egindako jarduerak grabatzeko</p>	
---	--	--

<p><u>3.-Entzumena eta musika-inguruak</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Entzumen aktiboaren arauak: arreta, aditze memoria, barne entzumena, oinarrizko analisisa eta ikuspuntu kritikoa. 2. Mendebaldeko musika-ondarearen eta beste kultura batzuen musika-adierazpen nabarmenenak. 3. Mendebaldeko musikaren aldiak, estiloak eta musikagileak euren testuinguru soziokulturalean. 4. Estilo aniztasuna gaur egungo musikan eta bere gizarte funtzioa. 5. Musika, irudia eta teknologia: elektronika eta informatika musikari aplikatuak. 6. Musikaren presentzia beste adierazpen artistiko batzuetan: dantza, antzerkia, arte plastikoak 	<p><u>3.-Entzumena eta musika-inguruak</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Lan ezberdinen entzumen adierazgarria instrumentazioa, formak, kronologia, joera estetikoak eta generoak analizatuta. 2. Testu, partitura eta beste baliabide grafikoen erabilera, entzumenaren lagungarri gisa aditutako lanak testuinguruan hobeto kokatzeko 3. Ahozko eta idatzizko hizkuntzaren erabilera, modu ulergarrian eta teknikoan landutako musika lanaren alderdi jakinak adierazteko. 4. Landutako musika lanarekin lotura duten alderdien ikerketa: kultur testuingurua, egilea, generoa, forma eta konposizioaren osagaiak. 5. Ikus-entzunezko eta informatika-baliabide ezberdinen erabilera sortze, pertzepzio eta musika hautemate 	<p><u>3. -Entzumena eta musika-inguruak</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Musikaren entzutea balioestea komunikazio bide, ezagutze iturri eta kultur arteko aberastasun gisa. 2. Besteak entzutea eta errespetatzeko ohitura osasungarriak garatzeko interesa, hausnarketa eta ikerketa sustatuko duen entzute arretatsua ea kontzientea eginez. 3. Gertakari musikal guztiak errespetatzea, norberarenak ez diren irizpideak eta gustuak onartuz eta norbere irizpidea argudio logiko eta arrazoituekin azalduz. 4. Zuzeneko musika interpretazioa eta entzutea balioestea. 5. Euskal Herriko eta munduko beste herri batzuetako ondare artistiko-musikala balioestea. 6. Musikaren kontsumo bereizi gabea eta
---	--	--

<p>eta ikusizkoak, zinema).</p> <p>7. Musika eta komunikabideak: komunikabideen eragina (irratia eta telebista) musika sortzean, zabaltzean eta kontsumitzean.</p> <p>8. Musika zuzenean: kontzertuak eta beste kultur adierazpen batzuk.</p>	<p>helburuekin</p> <p>6. Grabatutako musikaren analisia ikusizko hizkuntzei dagokienez (zinema, antzerkia, publizitatea).</p> <p>7. Kontzertuetara eta beste musika adierazpen batzuetara joatea, eskuratutako ezagupenetan oinarritzen diren kritikak eginez.</p> <p>8. Informazio iturri ezberdinetan bilaketa egitea (fonotekak, egunkariak, aldizkariak, Internet eta beste informazio iturri batzuk) gure inguruan ospatzen diren kontzertu eta musika ikuskizunei buruzko berriak, oharrak eta kritikak.</p>	<p>soinu kutsadurarekiko sentiberatasuna eta jarrera kritikoa, ekologia akustikoarenganako arduraz.</p> <p>7. Ikus-entzunezko baliabide eta informazio- zein komunikazio-teknologia ezberdinak ezagutzeko eta erabiltzeko interesa, musika jardueretako baliabide gisa.</p>
---	--	---



ARLOA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Ebaluazioa hezkuntza-prozesu guztiaren barruan dagoen fase bat da. Ebaluazio prozesua arloan ulertzen den moduan, ebaluazio eredu hezigarri bat da motibazioa eta autohobetzea. Gainera, hezkuntza-jardueran etengabeko hobekuntza sustatzen du. Baliabide didaktikoa ere bada, ez ikaskuntza neurtzeko soilik, baita heziketa praktika bideratzeko ere.

Musika arloak prozedurazko eduki zabala dauka, eta horrek ebaluatzekeo jarduerak ikasgelan egindako musika-jarduerak izatea errazten du.

Musika-lanak entzuteak ikasleak zein neurritaraino musika-lanaren ezaugarri garrantzitsuenak entzunez ezberdintzeko gai diren egiaztatzea eta ezagutu duten hori musika hiztegi egoki batez azaltzea ahalbidetzen du, musika-mota ezberdinak alderatzeko eta iritzia emateko, musika-lana bere testuinguruan kokatzeko...

Interpretazioak lortutako garapen tekniko maila, parte-hartze aktiboa, norbere inizatiba, taldeko gainerakoenganako egokitzea eta kooperazio lanari egiten zaion ekarpena egiaztatzea ahalbidetzen du.

Partitura mota ezberdinak irakurtzea, musika-jardueren testuinguruan, musika-hizkuntzaren ikurren eta sinboloen ulertze mailaren eta musika irakurketaren erabilera funtzionalaren adierazle da.

Ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- zein komunikazio-teknologiak erabiltzeak autonomoki erabiltzeko interesa eta jarrera behatzea ahalbidetzen dute, musikaren ikaste, ekoizte eta gozatze tresna gisa.

Musika Hezkuntzan, ebaluazio prozesuak ez dizkigu emaitzak datu modura soilik ematen. Horretaz gain, irakaste-ikaste prozesuari buruzko hausnarketa bati heldu behar zaio ikasleen aurrerapena, musikagatiko interesa, irakasle-ikasle interakzioa, aniztasunarenganako arreta, metodologia proposamenak, etab. kontuan izanda. Ebaluazioak estimulu gisa jokatu behar du, eta hezkuntza-prozesu oso bateratzea izan behar du bere xedea

GAITASUNAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
1.-Musika-interpretazioa eta sortzea ahalbidetuko duten trebetasun eta teknikak garatzea eta aplikatzea, ideiak eta sentimenduak adierazteko, bakarka edo taldeka.	1.- Musika irakurri eta melodia bakunak laguntzea oinarrizko harmonia egokia erabiliz, musika-proposamenei laguntzak eta koreografiak inprobisatzea eta egoera musikal batek eskatzen duen edozein rol hartzea (zuzendaritza, bakarlaria, taldekidea...)
2.-Kultur ondasun eta kultur arteko aberastasun iturri gisa, estilo, genero, joera eta kultura askotariko musika-lanen ezaugarriak ezagutzea eta erlazionatzea, terminologia egokia aplikatuta. Helburua horiek deskubritzea eta kritikoki balioestea da.	2.-Musika-lan ezberdinen bereizgarriak identifikatzea, terminologia egokia erabilita, bai musikaren osagaiak bai denbora eta lekuari dagokion testuinguruari lotutako alderdiak deskubritzeko.
3.-Musikaren eta hizkuntza artistikoen zein ezagutza-arloen arteko harremanak analizatzea, produkzio artistikoetan eta ikus-entzunezko zein komunikazioko bitartekoetan duen funtzioa baloratzeko.	3.-Musika-ekoizpen ezberdinetan musika sortzeko, editatzeko eta zabaltzeko oinarrizko prozesuak azaltzea (diskoak, irrati eta telebista saioak, zinema, publizitatea...), eta aipatutako ekoizpenei eta hauek gizartean duten funtzioari buruzko funtsezko iritzi kritiko bat egitea.
4 *.-Musika-jarduera kolektiboetan parte hartzea, taldearen barruan hainbat funtzio betetzea eta ideiak zein kritikak onartzea,	4.-Ikasgelako musika-jardueretan inplikatzeko, taldeko musikan dauden arauak errespetatuz:

lan-taldearen fruitu den produktu artistiko egokia lortzeko.	isiltasun markoa, taldeko zuzendariari eta taldekideei arreta jartzea, bakoitzak bere buruari entzutea, behar den momentuan jadutea....
5*.-Soinua eta isiltasuna balioestea, bai musika elementu gisa eta bai ingurumeneko zati gisa, ekologia akustikoaren eta soinuaren bereizkuntzarik gabeko erabilerari egindako erasoaren kontzientzia hartzeko.	5.-Eguneroko bizitzan soinuaren eta isiltasunaren erabilera identifikatzea, osasunari eta ingurumenari egiten dien ekarpena analizatuta eta, bereziki, kutsadura akustikoa dagoen egoerei eta zarata gogaikarririk gabeko inguruneen kontserbazioari arreta jarrita.
6.-Ikaskuntza autonomia garatzeko, musikaz gozatu ahal izateko eta musika-produkzioarako baliabide gisa erabiltzeko, erabili informazioaren nahiz komunikazioaren teknologiak eta ikus-entzunezko bitartekoak.	6.-Multimedia ekoizpen bakunak gauzatzea, grabatzea eta musika produzitzea, musika editatzeko programa ezberdinak modu errazean erabiliz.
7*.-Iturri ezberdineko informazioa kudeatzea (fonotekak, testuak, Internet, partiturak, eta beste baliabide grafiko batzuk), garai eta estilo ezberdineko musika ezagutzeko eta aberastasun pertsonal eta kultural iturri gisa balioesteko.	7.- Ikuskizun eta musika gertakizun ezberdinei buruzko iritzi kritiko eta oinarrituak egitea, eta norberaren ideiak zuzen argudiatzea, iturri dokumental ezberdinak erabilia.